

Udal talde politikoaren iritzia



AMAIA AGIRRE MUÑO, GOAZEN, GETXO!

Ilusioa, errealitatea, itxaropena eta bete diren konpromisoak; horiek guztiak ageri dira Getxoko Eusko Alderdi Jeltzalearen aurkezpen-txartelean, maiatzeko udal-hauteskundeetara begira. Amaia Agirre Muñoa izango da alderdiko hautagaia, Getxoko EAJ-PNV taldea osatzen dugun konfiantza berretsi baitu. Ondoren ikusiko dugun bezala, proposamen honek esperientzia eta freskotasuna uztartuko ditu itxaropentsua den hautagaitzan; izan ere, Getxon egi bihurtuko diren konpromisoen programarik onena jorratzen hasi gara jada, betiere getxoztarrak erdigun jarrita.

128 urteko historia daukan Euskadiko Alderdi Jeltzalearen katebegiak gara, eta harro gaude Getxoren eta Euskadiren alde lan egin duten, lan egiten duten eta lanean jarraitzeko beharrezkoak diren konpromisoak hartzen dituzten gizon-emakumeen taldeko kideak izateaz.

Etengabe diharduen kate horren baitan, Amaia Agirre buru duen taldeak EAJ-PNVren hurrengo lau urteetarako proposamena defendatu eta garatuko



du. Getxok izango duen etorkizun zirrargarria errealitate bihurtzeko ibilbidean aurrera eginez jarraitzen dugu. Iraunkorragoa den udalerrria lortu nahi dugu, gizarte-arloan kohesionatuagoa

dena, pertsona guztiak inklusiboagoa, eta pertsonetikiko konpromisoan erantzukizun handiagoa duena, bai eta zeharkako ardatz gisa berdintasuna eta aniztasuna dituen ere.

Getxo gauza guztiak dituen tokia izatea nahi dugu, getxoztarrak bizi ahal izateko udalerrria; hori guztia, belar-naldi guztietara egokituta dagoen eta Getxon dauzkagun beharrezko guztiei erantzuneko dien etxebizitzaren plan estrategikoaren bidez lortuko dugu.

Getxo lan egin ahal izateko udalerrria izan dadin nahi dugu, zeinetan 140.000 m²-ko espazioa eskainiko baita Martiturrin kalitatezko lan-aukera erakargarriak sortuko dituzten balio erantsi handiko enpresak ezartzeko.

Kulturaren eta kirolaren hiria den udalerrri honetan gozatu nahi dugu: punta-ko instalazioak ditugu eta, aldi berean, Getxoko natura-ingurunea den aktibo handienetako bat zaintzen dugu; horren erakusgarri dira bai Aixerrota eta Sopela arteko gunea, bai gure herrian oso garrantzitsuak diren beste ingurumen-gune batzuk.

Ilusioa eta bete diren konpromisoak: horrela definitzen da Getxoko EAJ-PNV alderdia eta Amaia Agirre buru duen taldea.



ARRAPALA MEKANIKOAK NEGURIKO AIBOA KALEAN



MEJORA DE LA ACCESIBILIDAD

NUESTRO PROYECTO EN NEGURI

RAMPAS EN C/AIBOA

Proponemos 3 tramos de rampa que unan Avda. de los Chopos con la calle Udaberri.

@ppgetxo 900.871.280 www.pppgetxo.net @populares.getxo

#DESPIERTAGETXO



Gaur egungo egoerari begira, Gernikako parketik Udaberria kalera joateko malda handi bat igo behar da Aiboa kalean, eta aldapa hori ezinezkoa da askorentzat. Asko dira herriko goiko aldera joan nahi izaten duten eta ezin duten egoiliarak eta auzotarrak. Hori dela eta, PP taldeko kideok desnibel hori posible den modu bakarrean berdintzea nahi dugu: arrapala me-

kanikoen hiru tarte jarritz, Makaleta etorbidea eta Udaberri kalea modu errazean konektatze aldera. Kontuan izan behar dugu udalaren erantzukizuna dela guztion irisgarritasuna bermatzea eta, beharrezkoa denean, mugikortasuna hobetzea; aitzitik, itxuraz EAJri gutxi edo oso gutxi interesatzen zaizkio getxoztarren benetako arazoak. #despiertagetxo



ZAINZA LANEN KUDEAKETARAKO UDAL ORGANISMO PUBLIKO-KOMUNITARIOA

Zainketarako beharrak nabarmenak dira gure herrian, jendea gero eta urte gehiago bizi da, baina ez dugu zahartzaroaren kudeaketarako eredu eraginkorrik, gizarte moduan ez baitiogu gai honi behar duen tarte eskaintzen. Etorkizuneko ongizatea bermatzeko beharrezkoa da zaintza erdiguneko kokatzea eta akatsetatik ikastea; izan ere, historian zehar zainketa lanen balorazio ezak izan dituen ondorioak nabarmenak izan dira. Gure ustez, gizarte batek zaintzak kudeatzeko duen modua gizarte horren ongizatearen adierazle ona izan daiteke.

Gure inguruan sarritan familia askok zaintza lanak kontu pribatua balitz bezala hartu behar izan dute. Baina zaintza lanek publiko izan behar dute; izan ere, zaintzak oinarrizko lanak dira

bizitzak sostengatzeko. Zaintza kateek eusten dituzte gure familiak, gure komunitateak, gure jendarteak, orohar. Etxeko eta zaintza lanetan lanean ari diren langileak (emakume migranteak, gehienak), beraien lana oso gutxi baloratzen denez, oso baldintza txarretan ari dira lanean (soldata baxuak, ordu-tegi luzeegiak, hitzeko kontratuak...). Horregatik, zaintzaileen eta zaindunen ongizatea erdiguneko jarri behar dugu, eta langileen lan baldintza prekarioak hobetu.

Horrenbestez, EH Bildutik Udal Osoko Bilkuran eskatu dugu zaintza eredu publiko komunitarioa abian jartzeko lehen pausua ematea; hau da, zaintza lanen etxez etxeko zerbitzuaren kudeaketarako Udal organismo publiko-komunitarioa eratzeko azterketa bat abian jartzea.



GURE HAUSTESKUNDE-PROGRAMA SORTZEN LAGUNDU

Getxoko PSE-EEko kideok lanean ari gara gure udalerrria hobetzeko proiektu berriak sortzeko eta beharrezkoak identifikatzeko, maiatzaren 28an egingo diren udal-hauteskundeetatik abiatuta. Gure auzotarrek gure hauteskunde-programa egiten parte hartu behar dutela uste dugu; izan ere, getxoztarrak dira Getxok hobetu dezan zer behar duen ondoen dakitenak. Herriarrek Getxoren eraldaketaren parte izan dezaten nahi dugu. Hala egin genuen 2019ko hauteskundeetan, eta gauzatu diren proiektuak propo-

satu genituen orduantxe, hala nola Areetako Geltoki plaza birmoldatzea (obra amaitzeaz dago jada), Emakumeen Etxea zabaltzea, bigorri berriak egitea, eta TAO gune berriak ezartzea.

Gure ustez, politika tresna bizia, dinamikoa eta erabilgarria da; horregatik, herritarren ahotsa, ilusioak eta itxaropenak lehen eskutik ezagutu nahi ditugu. Gure taldearekin harremanetan jartzera animatzen zaitugu; horretarako, eskuragarri dituzu getxo@socialistasvizcainos.com helbidea eta 688733456 telefono-zenbakia.



EGON DAITEZKEEN UHOLDEEN AURKAKO PREBENTZIOARIK GABE

Aurreko astean Getxon egon zen eguraldi txarra dela-eta, familia asko etengabeko ziurgabetasun- eta alerta-egoeran daude, Gobela ibaiak gainezka egiteko arriskuaren beldur. Hala eta guztiz ere, ulertezina den arrazoi batengatik, Gobernuak ez du uholdeen batzordea deitu, ezta kalte handiagoak prebenitzeko esku hartu ere. Are gehiago, funtsezko beharrezkoak asetzen ez dituen HA-

POan aurrera jarraitzen dute; horren adibide da ez dutela jorratu Salsidun bizitzaren jarraitu nahi duten familien egoera, beren etxebizitzak urez bete ez daitezkeen prebentzio-neurriak behar baitituzte. Hori konpontzeko, ezinbestekoa da entzute aktiboa, parte-hartzea eta enpatia erakustea, eta orain arte ez gaude horrelakorik jasotzen ari.

elkarrekinpodemos@getxo.eus